

## LOGIKA EUSKARAZ

Jesús María GOÑI ZABALA

Logikari buruz euskeraz iharduteko dauden oztopoak komentatzeko komenigarria dirudi hasieratik bertatik bereizketa funtsezko bat egitea. Alde batetik "texto literarioa" dena eta bestetik "formulak idazteko eta irakurtzeko modua" dena. Bereizketa honen arrazoa alde bakoitzak planteatzeko duen arazo mota desberdinean aurkitu beharko da. Artikulu labur honetan ez dugu bigarren puntua ikutuko, puntu hori hurrengo lan batetarako utziko dut.

"Texto literarioa" izendatu dudana Logikari buruz zerbait idazterakoan erabiltzen den prosa dela esango nuke. Alor honetan Logikan ez dira Matematikari, edota antzekoak diren beste gai zientifikoetan, agertzen ez diren problemak ematen. Alderdi honetatik begiraturik Logikari buruz idaztea edota Matematikari buruz egitea gauza antzekoak dira. Dena dela problemak antzekoak direla esateak ez du problemak ez daudenik baieztatzen, egiten duen gauza bakarra problema horiek komunak direla esatea da. Problema komun horik lexiko kontuan zentratzen dira gehien batean, lexiko kontu hori modu zabal batez ulerturik, noski. Nola esan "deducción"?, nola "método deductivo"?, eta abar...

Toki honetara ailegatzen garenean idazle guztiek erizpide argi bat jarraitzeko posibilitatea nahiko lukete, erizpide argiak ezartzeko aukerak izugarri erretzuko bait luke idazlearen lana. Nere iritziz puntu honetara heldu ahala bi bide agertzen dira: a). ikuspegi linguistiko batez hauzia epaitzea, b). ikuspegi soziologiko batez aritzea.

Ikuspegi linguistikoak aukeratutako hitza hizkuntzaren izaerarekin ongi uztartzen den edo begiratu luke. Baina zaila izango da, gaur egun oso zaila gertatzen ari da bederen, hizkuntzaren izaera dela eta jende guztia ados jartzea, batzuentzat euskera jatorra ez dena euskera posible bakarra da besteentzat, batzuentzat euskera argia eta herrikoa dena mordoiloa da besteentzat eta abar ... Egoera honetan nekosoa da oso erizpide linguistiko argiak aurkitzea lexikoa sortzeko. Erizpide argiak liraketeenak, hots termino guztiak euskal iturri batetik sortuak izan behar direla diona edota bere aurkakoa, lexikoa kontuan hitz "internazionalak" besterik gabe hartzea defendatzen duena, ez daude praktikara eramaterik. Erizpide argiak dira baina antzuak era berean. Azken arteotan bide erdirakoizalea nagusitu da, baina horrelako egoeratan gertatzen dena, hots argitasun eta zehaztasun faltak, gertatu da. Egoera hone-tan egile bakoitza bere senaz baliatzen da hiztegi-tan agertzen ez diren terminoekin topo egiten duenean. Agian hala beharko luke eta alor honetan erizpide linguistiko argiak aurki nahi izatea amets gaizto bat besterik ez da.

Logikari buruz euskeraz idatzi dena aztertzen badugu (artikulu labur honen bukaeran aurki daiteke zerrenda) bide erdirakoi hori jarraitu dela begien bistako gauza da.

Bi ikuspegi aipatu ditut hasieran, linguistikoa eta soziologikoa. Lehenari buruz mintzatu naizenez dagoeneko komentatu dezagun bigarrena. Ikuspegi soziologiko honetatik begiraturik hizkuntza komunikazio bidea da, hortaz hitz egokia komunikazioa zihurtatzen duena da eta desegokia nahasmendua sortzen duena. Jende multzo batek "ulertzen" duen terminoa bilakatzen da hitz esanahitsua beste guztiak hiztegi-tan agertu arren ez dira "benetako" hitzak. Gauzak horrela ulertuz gero problema oso

desberdina da. Oraindik Logikaz iharduteko benetako hitzak ditugun dudan jar daitekeen gauza da zeren ete hitz horiek "ulertzen" duen jende multzoa hain da urria non benetako masa kritikoa den ala ez galdetzea bidezkoa den zalantza dirudi. Ez dugu tradizioz gai hauetan eta zaila da jakitea tradizio hori sortzeko gai izango garen ala ez. Nere iritziz hemen dago kaka. Ikuspegi linguistiko batetik desegokia den hitza, eta esaten ari naizenaren adibide ugari daude, barra-barra erabiliz gero ulerkorra eta esannahitsua bilakatzen denean hizkuntzaren sisteman txertatzen da eta bertan iraungo du. Hemen ere nere kezka. Ez ote gara denbora asko xahutzen hitz hau edo hori egokia den edo erabakitzen? Ez litzateke eragingarriagoa izango denbora hori euskeraren eremu soziologikoa zabaltzen pasatzea? Dударik ez dago aukera batek ez duela bestea ukatzen baina ekonomian ezaguna den printzipioak zera dio: indar edo bitartekoak mugatuak direnean benetako problema non eta zein proportzioan inbertitzean datza. Gure kasua bitarteko mugatuarena denez inbertsio horiek non egin beharko ziren esatera ausartuko naiz. Euskeraz idaztea, lehen aipaturiko senaz baliaturik, da inbertsiorik onena.

Lexikoa berez jaioko da masa kritikoa gorputzen denean. Halae gertatu da Hezkuntza oinarritzorako beharrezkoa zen lexikoarekin, lekuko Ikastoletan sortutako hitz "desegoki" horiek; eta horrela gertatuko da espezializatuagoak diren gai hauetan. Jende multzo minimo bat ez bada gai hauetaz interesatzen gure saio guztiak, borondate onena eta guzti, testimonio huts batean gelditzeko arriskuan daude. Fakultate unibertsitarioetan dauden irakasle eta ikasleei dagokie txanda. Toki hauetan gorpuzten ez bada behin baino gehiagotan aipatu dugun masa kritiko hori gurea egin dugu idazle guztien lana airea pintatzen saiatzen direnen antzekoa izango bait da. Ez gaitezen ahaz ugariak direla Latina ederki menperatzen dituzten hizkuntzalariak.

Euskeraz logikari buruz argitaratuko lanen zerrenda.

FILOSOFIA. Batxilergo balioaniztun bateratua.

9., 10. eta 11. kapituluak

Egilea: Talde lana - UZEI

Argitaratzailea: UZEI

SILOGISMOAK ETA LOGIKA MATEMATIKOA

Egilea: J.M. Goñi

Argitaratzailea: ELHUYAR aldizkaria, 18. alea

FELAPTON SILOGISMOA DELA ETA

Egilea: Carlos Santamaría

Argitaratzailea: ELHUYAR aldizkaria, 22. alea

LOGIKA. MULTZO TEORIA

Egilea: J.M. Goñi

Argitaratzailea: ELHUYAR

LOGIKA MATEMATIKOA

Egilea: J.M. Goñi

Argitara emen gabe.